

Euskal Herria  
País Vasco  
Basque  
Country



Joxerra Garzia

# Bertsolaritza

El bertsolarismo ■ *Bertsolaritza*







Joxerra Garzia

# Bertsolaritza

El bertsolarismo ■ *Bertsolaritza*

Euskarazko bat-bateko bertsogintzaren gaur egungo egoera, tradizioa eta etorkizuna

Realidad, tradición y futuro de la improvisación oral vasca

The Reality, Tradition and Future of Basque Oral Improvisation

**EUSKAL HERRIA**  
PAÍS VASCO  
BASQUE COUNTRY

## Euskal Kultura Saila

Colección Cultura Vasca / Basque Culture Series

---

- 1 Euskararen historia laburra / Breve historia de la lengua vasca / A Brief History of the Basque Language
- 2 XX. mendeko euskal literatura / Literatura vasca del siglo XX / Basque Literature in the Twentieth Century
- 3 Euskal musika klasikoa / Música clásica vasca / Basque Classical Music
- 4 Euskal kantagintza: pop, rock, folk / La canción vasca: pop, rock, folk / Basque Songwriting: Pop, Rock, Folk
- 5 Estanpa bilduma / Colección de estampas / A Collection of Prints
- 6 Euskal zinema / Cine vasco / Basque Cinema
- 7 Arkitektura eta diseinua / Arquitectura y diseño / Architecture and Design
- 8 Euskal dantza / La danza vasca / Basque Dance
- 9 Bertsolaritza / El bertsolarismo / *Bertsolaritza*
- 10 Tradizioak / Tradiciones / Traditions
- 11 Euskal sukaldaritzaz / Sobre cocina vasca / On Basque Cuisine
- 12 Euskal antzerkia / Teatro vasco / Basque Theater

**Euskal Kultura Sailaren editorea**  
**Editora de la Colección Cultura Vasca**  
**Basque Culture Series Editor:**  
Mari Jose Olaziregi

© **Testua / Texto / Text:**  
Joxerra Garzia

© **Euskarazko itzulpena:**  
Jose Antonio Sarasola

© **Translation into English:**  
Cameron Watson

© **Diseinua / Diseño / Design:**  
Tiktak multimedia

© **Azala / Portada / Front Cover**  
Argazki Press

**Inprimatzailea / Imprime / Printed by:**  
Gráficas Dosbi

**L.G. / D.L. / L.D.:** VI-580/2012

**ISBN:** 978-84-614-9763-8

**Etxepare Euskal Institutua**  
Instituto Vasco Etxepare / Etxepare Basque Institute  
Prim 7, 1  
E- 20006 Donostia-San Sebastián  
etxepare@etxepare.net  
www.etxepareinstitutua.net

# Euskara, jalgi hadi mundura

Euskara, muéstrate al mundo

Euskara, go forth into the world

1545. urtean, Bernart Etxeparek bere *Linguae Vasconum Primitiae*, euskarazko lehenengo liburua, argitaratu zuenean, desira bat adierazi zuen: **“Euskara, jalgi hadi mundura”**.

Etxepare Euskal Institutuak gure lehenengo idazlearen omenez hartu du izena, eta, haren desira gure izatearen ardatz bilakaturik, euskara eta euskal kultura mundura ateratzea eta zabaltzea du helburutzat.

Batetik, gure eginkizuna euskararen ezaguera sustatzea da eta haren ikasketa bultzatzea esparru akademikoan; eta bestetik, gure sortzaileak eta haien adierazpen artistikoak nazioartean ezagutarazten ahalegintzen gara: gure artista plastikoak, musikariak, dantzariak, idazleak, zine-zuzendariak, antzezleak...

Gure hizkuntza eta kultura munduan barrena zabaltzeko ahalegin horretan, liburu-sorta bat sortzea izan da gure lehenengo lanetako bat, horren bidez informazioa emateko euskarari buruz eta gure kultura osatzen eta aberasten duten alor artistiko eta kultural guztiei buruz.

En 1545, se publicó el primer libro en euskara *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernart Etxepare, quien formuló un deseo: **“Euskara, jalgi hadi mundura”** (Euskara, muéstrate al mundo).

El Instituto Vasco Etxepare toma su nombre de este primer autor vasco, y convierte, además, su deseo en nuestro lema. Siendo el objetivo y la misión del Instituto la de promover y difundir la lengua y la cultura vasca por todo el mundo.

Por un lado, es nuestra tarea fomentar el conocimiento sobre nuestra lengua, y su aprendizaje en el ámbito académico. Y por otro, queremos dar a conocer internacionalmente las manifestaciones artísticas de nuestros creadores: artistas plásticos, músicos, bailarines, escritores, directores de cine, actores, etc.

Una de las primeras tareas en la internacionalización de nuestra lengua y cultura ha sido crear esta colección con el objetivo de informar sobre nuestro idioma, el euskara, y sobre todas las disciplinas artísticas y culturales que conforman la riqueza de nuestra cultura.

In 1545 the first book in Euskara, *Linguae Vasconum Primitiae*, was published by Bernart Etxepare, who expressed one wish: **Euskara, jalgi hadi mundura** *Euskara, go forth into the world*.

The Etxepare Basque Institute takes its name from this first Basque author and, moreover, converts his wish in our motto. The Institute's objective and mission is to promote and diffuse the Basque language and culture throughout the world.

On the one hand, our task is to promote knowledge about our language, and its study in the academic sphere. And on the other, we want to introduce the creative expressions of our artists: visual artists, musicians, dancers, writers, film directors, actors, and so on.

One of the first tasks in the internationalisation of our language and culture has been to create this collection with the aim of informing people about our language, Euskara, and about the artistic and cultural disciplines that make up the wealth of our culture.

## Aizpea Goenaga

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria  
Directora del Instituto Vasco Etxepare  
Director of the Etxepare Basque Institute



---

# Aurkibidea

## Índice ■ Index

---

<b>Hitzaurrea</b> Introducción Introduction	6
<b>Gaur egungo bertsolaritzaren gorakada</b> La pujanza del bertsolarismo actual The Strength of Contemporary <i>Bertsolaritza</i>	10
<b>Bertsolaritza-artearen agerpenak</b> Manifestaciones del arte del bertsolarismo Demonstrations of the Art of <i>Bertsolaritza</i>	20
<b>Bertsolari ofizioa</b> El oficio de bertsolari The <i>Bertsolari</i> Profession	32
<b>Bertsolaritzaren historia laburra</b> Breve historia del bertsolarismo A Brief History of <i>Bertsolaritza</i>	42
<b>Bertsolaritza Informazioaren Gizartean</b> El bertsolarismo en la Sociedad de la Información <i>Bertsolaritza</i> in the Information Society	106

---

**Bibliografia** / Bibliografía / Bibliography 110

**Argazkiak** / Fotografías / Photographs 111

Joxerra Garzia 112

---

---

Joxerra Garzia

# Hitzaurrea

Introducción ■ Introduction

---



Jose Manuel Lujanbio "Txirrita"

## Sarrerako gorabehera batzuk

Liburu honen helburu nagusia bertsolaritza zertan datzan ulertu ahal izateko argibideak eskaintzea da. Lehenengo eta behin, bertsolaritzak gaur egun bizi duen egoera bere konplexutasun guztian azaltzen saiatuko gara. Behin fenomeno honen egoera aurkeztu ondoren, bertsolaritzaren historia aztertuko dugu hasi, bere hastapen ilunetatik eta gaur egunera arte, ahozko tradizio honen bitzta luze eta arrakastatsuko protagonista nagusietako batzuen bitartez.

Kontuan hartuta, zorionez, gaur egun oso erraz lor daitekeela bertsolaritzari buruzko nahi den informazio guztia, egokiago iritzi diogu, liburu honetan informazio hori pilatzen jardun gabe, berorren interpretazio zuzenerako giltzak eskaintzeari. Obra honetan zehar kasu jakin bakoitzaren gaineko informazio gehigarria aurkitzeko erreferentziak ematen dira.

Aurrera jarraitu aurretik, *bertsolari*, *bertso* eta *bertsolaritza* kontzeptuak argitzea eta zehaztea komeni da.





*Bertsolaritza* filmeko fotograma bat / Un fotograma de la película *Bertsolaritza* / A Still from the Film *Bertsolaritza*

## Algunos aspectos preliminares

El principal objetivo de este libro es ofrecer las claves necesarias para la comprensión cabal del bertsolarismo.

En primer lugar, trataremos de dar cumplida cuenta de la realidad actual del bertsolarismo en toda su complejidad. Una vez expuesta la realidad actual del fenómeno, recorreremos la historia del bertsolarismo desde sus oscuros orígenes hasta la actualidad, a través de algunos de los principales protagonistas de la larga y exitosa historia de esta tradición oral.

Como quiera que, por fortuna, la información sobre el bertsolarismo es hoy abundante y de fácil acceso, hemos procurado huir de la mera acumulación de datos, en la firme creencia de que la mejor aportación que puede hacer esta obra es ofrecer las claves necesarias para interpretar la información sobre el bertsolarismo. A lo largo de la obra se indican las referencias en las que puede encontrarse más información en cada caso.

Antes de seguir adelante, conviene aclarar y precisar los conceptos de *bertsolari bertso* y *bertsolarismo*.

## Some Preliminary Aspects

The principal goal of this book is to present the necessary means for fully understanding *bertsolaritza*.

Initially, I will attempt a detailed description of the current reality of *bertsolaritza* in all its complexity. Once the current reality of the phenomenon has been addressed, I will trace the history of *bertsolaritza* from its obscure origins to the present, by means of its main protagonists in the long and successful history of this oral tradition.

Given that luckily information on *bertsolaritza* is today plentiful and easily accessible, I have tried to avoid merely accumulating facts, in the firm belief that the best contribution this work can make is to offer the necessary means for interpreting information about *bertsolaritza*. I have added clear references throughout the work where in each case one can access further information.

Before continuing, it is worth clarifying and explaining precisely the concepts of *bertsolari*, *bertso* and *bertsolaritza*.

---

Gaur egun, bertsolaritzat hartzen da entzuleria baten aurrean bertsoak bat-batean asmatzeko gaitasuna daukana, eta ez beste inor.

---

Nor da bertsolari? Gaur egun, bertsolaritzat hartzen da entzuleria baten aurrean bertsoak bat-batean asmatzeko gaitasuna daukana, eta ez beste inor. Beraz, bertso paperak idazten dituenari, edo aurretiaz sortu eta buruz ikasiriko bertsoak abesten dituenari ez zaie aitortzen bertsolari estatusa, bertso horiek kalitate-rik handienekoak badira ere.

Zer da bertsoa? *Bertsoa*, erdarazko *verso* edo *verse* ez bezala, estrofa osoa da, eta ez estrofa horretako lerro bakoitza.

*Bertsolaritza* hitzak adieraz dezake bertsoak bat-batean asmatzeko artea edo gaitasuna (*bertsogintza*), edota aipatu fenomenoaren inguruan sortu den mugimendu soziala.

Eman ditugun argibide hauek zehaztaper terminologikoak baizik ez dira eta daukaten helburu bakarra gaizkiulertuak saihestea da. Oinarrizko kontzeptu horien eta beste batzuen definizioa, eta horrekin batera, bertsolaritzaren errealitate konplexua, orrialde haue-tan zehar argituz joango da. Horixe da, behintzat, egi-leak espero duena.

---

¿Quién es bertsolari? Hoy en día se considera bertsolari sólo a quien es capaz de improvisar bertsos ante un auditorio. A quien escribe bertsos, o canta bertsos previamente creados y memorizados, no se le reconoce es estatus de bertsolari, por más que sus bertsos sean de extraordinaria calidad.

¿Qué es un bertso? *Bertso*, a diferencia de *verso* o *verse*, no es una línea de una estrofa, sino la estrofa entera.

*Bertsolarismo* puede designar tanto el arte de improvisar versos (*bertsogintza*) como el movimiento social creado en torno al mismo (*bertsolaritza*).

Conviene tomar estas primeras indicaciones como lo que son: meras precisiones terminológicas cuyo objetivo es sólo evitar malentendidos. La definición de esos y otros conceptos básicos, y con ella la compleja realidad del bertsolarismo, irá aflorando a lo largo de estas páginas. Al menos, ésa es la esperanza del autor.

Who is a *bertsolari*? Today a *bertsolari* is only considered to be someone capable of improvising *bertsos* in front of an audience. Anyone who writes *bertsos*, or sings previously created and memorised *bertsos*, is not accorded the *bertsolari* status, however extraordinary the quality of their *bertsos* might be.

What is a *bertso*? A *bertso*, unlike a *verso* or *verse*, is not a line in a stanza, but rather the whole stanza itself.

*Bertsolaritza* can designate both the art of improvising verses (*bertsogintza*) and the social movement created around it (*bertsolaritza*).

One should take these initial indications for what they are: mere terminological definitions whose goal is only to avoid misunderstandings. The definition of these and other basic concepts, and with this the complex reality of *bertsolaritza*, will be demonstrated throughout these pages. At least, that is the author's hope.

---

# Gaur egungo bertsolaritzaren gorakada

---

La pujanza del  
bertsolarismo actual

The Strength of  
Contemporary *Bertsolaritza*

Nahitaezko soldadutzaren aurrean intsumiso deklaratzegatik ezarri zioten epaiketari, Jon Sarasuak, epailearen galderari erantzunez, bertsolari ofizioa zertan zetzan azaldu behar izan zuen. Epaian jasoa geratu denez, Jon Sarasuaren adierazpenetatik epaileak zera ulertu zuen, bertsolariak zirela “una especie de juglares sabelotodo”; halere, definizio horri zuzenketa batzuk egin beharra dago.

Hasteko, bertsolariaren profila hurbilago legoke trobadoretik eta ez juglaretik, bertsolariak ez baititu abesten beste norbaitek (edo berak aurretiaz) moldaturiko koplak; aitzitik, inprobisatu egiten ditu, abestu ahala, bere bertsoak. Dena dela, eta alderdi hau aurrekoa baino askoz ere garrantzitsuagoa da, gaur egungo bertsolariak juglare edo trobadore gisa definitzeak okerreko iritzi bati eman liezaioke bide, hots, antzinako fenomeno bat dela, arrazoi misterioetsuren batengatik, duela hainbat mende praktikatzan zen bezalaxe gure egunetara arte iraun duena. Hor, beraz, erlikia batez ariko ginatke, gaur miresgarri bezain alferreko batez, lehenbiziko asmakari aeronautikoak edo XIX. mendeko idazma-kinak bezala.

Ezer ez egiatik urrunago. Bertsolaritza gaur egun errealitate sendo eta onarpen sozial handikoa da euskarak bizirik dirauen eremu geografikoetan. Bertsolaritzak gizarte euskaldunetan daukan sasoi bete hori argi eta garbi islatzen da egin diren azterketa soziologikoetan.<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Bertsozale Elkartearen enkarguz SIADECO enpresak, 1993an, egindako azterketa soziologikoak azaltzen zuen euskaldunen %15ak bertsoaletzat zuela bere burua; %35ak zaletasun nahikoa zuen, eta %28 bertsolaritzarekin interesatuta zegoen. Hamahiru urte geroago (2006), Xabier Aierdi eta Alfredo Retortillo Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek egindako azterketaren arabera, elkarte beraren enkarguz, anzteko datuak azaltzen zituen: %14 zale amorratuak; %26 moderatuak; %28 noizbehinkakoak; %32 zaletasunik ez. Azken azterketa horren laburpena ikusteko: [http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo\\_aierdi](http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo_aierdi).

En el juicio a que fue sometido por insumisión al servicio militar obligatorio, el *bertsolari* Jon Sarasua, tuvo que explicar, a instancias del juez, en qué consistía su oficio de *bertsolari*. Según recoge la sentencia, de las declaraciones de Jon Sarasua el juez dedujo que los *bertsolaris* debían de ser “una especie de juglares sabelotodo”, definición que habría que matizar en algunos aspectos.

En primer lugar, el perfil de los *bertsolaris* se asemejaría más al de los trovadores que al de los juglares, puesto que no cantan lo compuesto por otros (o por ellos mismos con anterioridad), sino que crean los *bertsos* según cantan, en pura improvisación. En todo caso, y este aspecto es mucho más relevante que el anterior, definir a los *bertsolaris* actuales como juglares o trovadores podría hacernos creer que nos encontramos ante un fenómeno antiguo que, por alguna misteriosa razón, ha sobrevivido hasta nuestros días tal y como se practicaba hace siglos. Así pues, estaríamos hablando de una reliquia, de un objeto tan admirable como inservible, a la manera de los primeros modelos aeronáuticos o las máquinas de escribir del siglo XIX.

Nada más lejos de la realidad. El *bertsolarismo* improvisado es hoy una realidad pujante y de gran prestigio social en los ámbitos geográficos en los que el euskara sigue vivo. La pujanza y centralidad del *bertsolarismo* en la comunidad vasco-parlante se refleja con claridad en los estudios sociológicos realizados.<sup>1</sup>

<sup>1</sup> El estudio sociológico realizado en 1993 por la empresa SIADECO por encargo de Bertsozale Elkartea, revelaba que el 15% de los vascohablantes se declara gran aficionado al *bertsolarismo*; el 35% dice tener bastante afición, y el 28% declara interesarse algo por el *bertsolarismo*. Trece años más tarde (2006), otro estudio realizado por los profesores de la Universidad del País Vasco Xabier Aierdi y Alfredo Retortillo, por encargo de la Asociación de Amigos del *Bertsolarismo*, arrojaba datos similares: 14%, grandes aficionados; 26%, moderados; 28% ocasionales; 32% no afi-

In the trial which he was subjected to for refusing to do compulsory military service, the *bertsolari* Jon Sarasua had to explain, at the request of the judge, what exactly the profession of *bertsolari* was. According to court records, the judge deduced from Sarasua's declarations that *bertsolaris* must be “kinds of know-all minstrels,” a definition one should clarify in certain aspects.

In the first instance, the profile of *bertsolaris* would resemble more that of troubadours than minstrels, given that they do not sing things composed by other people (or by themselves previously), but instead they create and sing *bertsos* as they go along, in a pure form of improvisation. In any event, and this is much more important, defining contemporary *bertsolaris* as minstrels or troubadours might lead us to think of this an old-fashioned phenomenon that, for some mysterious reason, has survived down to the present in the same way it was practiced centuries ago. If this were the case, we would thus be speaking about a relic, an object as admirable as it was impractical, like the first aeronautical models or typewriters of the nineteenth century.

However, nothing could be further from the truth. Improvised *bertsolaritza* is today a powerful and highly prestigious reality in those geographic areas where Euskara continues to exist. Indeed, the strength and importance of *bertsolaritza* in the Basque-speaking community is clearly reflected in several sociological studies.<sup>1</sup>

<sup>1</sup> The sociological study commissioned by the Bertsozale Elkartea and undertaken in 1993 by the SIADECO company revealed that 15% of Basque-speakers considered themselves great enthusiasts of *bertsolaritza*; 35% said they were very interested in it, and 28% said they had some interest in it. Thirteen years later, in 2006, another study carried out by two professors at the University of the Basque Country, Xabier Aierdi and Alfredo Retortillo, commissioned by the Association of the Friends of *Bertsolaritza*, came up with similar results: 14% were great enthusiasts; 26% had a moderate interest; 28% an occasional interest; and 32%

2005eko finalean, 15.000 lagun izan ziren lehiaketaren lekuko (eta beste hainbatek irri eta telebista bidez ekitaldi guztia jarraitu zuten). Beste horrenbeste gertatu zen 2009ko edizioan.

Edo, bestela, bertsolaritzaren bizitasuna egiaztatu nahi duenak, ez dauka bere agerpen masiboenetako batean erreparatu besterik: bertsolarien txapelketa nagusiko finala, lau urtean behin egiten den lehiaketa. 2005ean final hori Bizkaian egin zen, zehazkiago BECen (Bilbao Exhibition Centre). Finala, euskaldun dentsitate kopuru handiena daukan probintzian, Gipuzkoan, egiten ez zen lehenbiziko aldia zen, benetako erronka, alegia. Emaizta gogoangarria izan zen. 15.000 lagun izan ziren lehiaketaren lekuko (eta beste hainbatek irri eta telebista bidez ekitaldi guztia jarraitu zuten). Beste horrenbeste gertatu zen 2009ko edizioan.<sup>2</sup>

Irudiaren gizarte honetan, erritmo gero eta zorabiarriagoekin, arreta guztiz lehiatua eta mezu gero eta laburragoekin, nekez ulertzen da nola den posible 15.000 lagun sei ordu baino gehiagoan egotea (goiz eta arratsaldeko saioetan, tartean bazkaltzeko etenaldi batekin) funtsean bideokliparen antitesia den emanaldi bat atseginez entzuten: bertsolariek “a capella” abesten dute, zutik, jarrera hieratikoa mikroen atzean parapetaturik, hutsaren hurrengo eszenografiarekin, eta emanaldiaren erritmoa bertsoen edukiak markatzen duela.

Datu hauek daukaten garrantziaz jabetzeko, gogorazi beharra dago mota honetako ekitaldi batek erakar dezakeen publiko bakarra, esan beharrik ere ez dago, populazio euskalduna dela, eta iturri fidagarrienen arabera, komunitate hori 750.000 bat lagunek osatzen dugula<sup>3</sup> (kopuru hori zertxobait gehitu

<sup>2</sup> Merezi du John Foley, Oral Tradition Centre-ko zuzendariak beste aditu batzuekin batera 2005eko finalera joan ostean idatzitako kronikari begirada bat botatzea: <http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/foley>. Kronikaz gain, 2005eko finaleko hainbat une ikus daitezke, argazkitan zein bideoz.

<sup>3</sup> Aipaturiko Aierdi eta Retortilloren artikuluan ([http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo\\_aierdi](http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo_aierdi)), egileek gaur egungo euskal gizartearen errealtate sozio-kulturalaren deskribapen ongi dokumentatu eta bikaina egiten dute, eta bertsolaritzari dagozkion datuak ulertzeko eta baloratzeko testuingurua eskaintzen du.



Bertsolari Txapelketa Nagusia (2009) / Campeonato Nacional de Bertsolaris (2009) / Bertsolari Championship final (2009)

Otra manera de constatar la vitalidad del bertsolarismo es observar una de sus manifestaciones más masivas: la final del campeonato nacional de bertsolaris, competición que se celebra cada cuatro años. En 2005, la final se celebró en Bizkaia, más concretamente en el BEC (Bilbao Exhibition Center). Era la primera vez que la final salía de la provincia que mayor densidad de vascoparlantes tiene, Gipuzkoa, lo cual era todo un reto.

El resultado fue espectacular. Aproximadamente 15.000 personas asistieron al evento (y otras muchas lo siguieron por radio o televisión). Otro tanto ocurrió en la edición de 2009.<sup>2</sup>

En esta sociedad de la imagen, donde los ritmos cada vez más vertiginosos, la atención más disputada y los mensajes más cortos, no resulta fácil explicar cómo es posible que 15.000 personas atiendan con deleite durante más de seis horas (repartidas entre mañana y tarde, con una pausa para la comida) a un espectá-

cionados. Ver el resumen de este último estudio en: [http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo\\_aierdi](http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo_aierdi).

<sup>2</sup> Merece la pena consultar la crónica de John Foley, director del *Oral Tradition Centre*, tras asistir, junto con otros expertos, a la final de 2005: <http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/foley>. Además de la propia crónica, pueden verse diversos momentos de la final de 2005, tanto en fotografía como en vídeo.

Another way of demonstrating the vitality of *bertsolaritza* is to observe one of its largest expressions: the national *bertsolari* championship final, a competition held every four years. In 2005 the final was held in Bizkaia, and specifically in the BEC (Bilbao Exhibition Centre). It was the first time the final had been held outside the most Basque-speaking province, Gipuzkoa, which was a major challenge for the organisers. The result was spectacular. Approximately 15,000 people attended the event (with many others following it on the radio and television). And it was a similar story during the 2009 edition.<sup>2</sup>

In this image-driven society, with an ever dizzying rhythm of life, shorter attention-spans and fleeting messages, it is not easy to explain why 15,000 people are happy to spend over six hours (divided up between morning and afternoon sessions, with a break for lunch) attending an event which is, in essence, the antithesis of the pop video; *bertsolaris*

not particularly interested. See a summary of this latter study at: [http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo\\_aierdi](http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo_aierdi).

<sup>2</sup> On this one should consult the feature by John Foley, director of the Oral Tradition Center, after attending the 2005 final together with other experts, at <http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/foley>. Besides the feature itself, one can see several moments from the 2005 final, both in photographs and on video.

Bertsolare Elkartearen webgunea / Web de Bertsolare Elkarte, Asociación de Amigos del Bertsolarismo / Website of the Bertsolare Elkarte, the Association of the Friends of *Bertsolaritz*

daiteke, euskaraz mintzatzeko gai izan gabe ere, uler-tu egiten duen jendea barne hartzen bada, baina inolaz ere ez da milioira iristen).

Bertsolaritzak gaur egungo euskal gizartearen daukan garrantzia ez da kasualitatearen emaitza; aitzitik, neurri handi batean behintzat, azken 25 urte hauetan egin den berrikuntzaren aldeko apustuari zor zaio, bertsolari, bertsotzale eta antolatzaile belaunaldi batek landutako estrategia soziokulturalaren barruan kokatzen den apustua, beren gidaritzapean hartu dutelarik bertsolaritza kolektibo gisa, Bertsolare Elkartearen inguruan antolatuz.

## Bertsolare Elkarte

Bertsolare Elkarteak, gaur egun milatik gora bazkide dauka, horien artean ia bertsolari guztiak. 1986an sortu zen, "Bertsolari Elkarte" izenarekin eta bere lehenbiziko eginkizuna bertsolarien txapelketa antolatzea izan zen, ordura arte Euskaltzaindiak egiten zuena. 1995ean, birfundatze bat gertatu zen, besteak beste, izena aldatuz, eta harrezkero etengabe ari da hazten eta erantzukizun berriak bere gain hartzen. 2008az gero, Mintzola Fundazioan barne hartua, Elkarteak gestioantzen du Ahozkotasanaren Xepelar Dokumentazio Zentroa; bertsolaritza eta ahozkotasanari buruzko ikerketa antolatzen, koordinatzen eta sustatzen du, eta beste hainbat materialen artean, urtero, bat-bateko bertso onenen antologia argitaratzen du; bertsolaritza artearen transmisio mugimendua koordinatzen du, bai bertso eskoletan eta bai Hezkuntza arautuan; Euskal Telebistako *Hitzetik Hortzera* bertsolaritzari buruzko asteroko programa ekoizten eta koordinatzen du; Lanku enpresa elkartuaren bitartez, bertso saioetarako bertsolarien kontratazioa gestioantzen du... Gainera, Elkarteak presentzia aktiboa dauka Euskal Herriko bizitza sozial eta kulturalaren beste hainbat arlotan ere. Horrez gain, betiere harremanean dihardu ahozkotasanarekin zerikusirik daukaten nazioarteko elkarte



culo que es, en esencia, la antítesis del videoclip: los bertsolaris cantan a capella, hieráticamente parapetados tras los micrófonos de pie; la escenografía se reduce a su mínima expresión, y el ritmo del espectáculo lo marca el contenido de los bertsos.

Para ponderar como es debido estos datos, conviene recordar que el público potencial al que el evento puede aspirar se reduce, por razones obvias, a la población vasco parlante, que conforma, según las fuentes más fidedignas, una comunidad de algo más de 750.000 personas<sup>3</sup> (la cifra puede revisarse algo al alza si se cuenta la gente que, aun no siendo capaz de hablar en euskera, puede entenderlo, pero en ningún caso llegaría al millón).

La centralidad del bertsolarismo en la sociedad vasca actual no es fruto de la casualidad, sino que se debe, en gran parte, a la apuesta de renovación realizada en los últimos 25 años, apuesta que se enmarca en la estrategia sociocultural desplegada por una generación de bertsolaris, aficionados y organizadores que han tomado el timón del bertsolarismo como colectivo, organizándose en torno a Bertsozale Elkartea (Asociación de Amigos del Bertsolarismo).

## La Asociación de Amigos del Bertsolarismo

Bertsozale Elkartea, Asociación de Amigos del Bertsolarismo, cuenta en la actualidad con más de mil asociados, entre los que se encuentra la práctica totalidad de los bertsolaris. Nacida en 1986 bajo el nombre de “Bertsolari Elkartea” (Asociación de Bertsolaris), su primera función fue organizar el campeonato de bertsolaris que hasta entonces organiza-

ing a cappella, standing solemnly and taking refuge behind microphones; the stage design is reduced to a minimum, and the rhythm of the event defines the content of the *bertsos*.

In order to weigh up these facts, it is worth remembering that the potential audience for an event like this is limited, for obvious reasons, to the Basque-speaking population, which is, according to the most reliable sources, a community of just over 750,000 people<sup>3</sup> (this figure might rise a little if people who, although they cannot speak Euskara, do understand it, are taken into account, but it would still never reach the million mark).

The importance of *bertsolaritza* in contemporary Basque society is not just the product of chance, but instead is the result, in many ways, of a commitment to overhaul the phenomenon during the last twenty-five years; a commitment framed in a sociocultural strategy deployed by a generation of *bertsolaris*, enthusiasts and organisers who have taken the helm of *bertsolaritza* as a collective, organising themselves around the Bertsozale Elkartea (Association of the Friends of *Bertsolaritza*).

## The Association of the Friends of Bertsolaritza

Bertsozale Elkartea, the Association of the Friends of *Bertsolaritza*, has at present over a thousand members, including almost all the *bertsolaris*. Created in 1986 under the name “Bertsolari Elkartea” (*Bertsolari Association*), its first task was to take charge of the *bertsolari* championship which had until then been organised by the Basque Language Academy,

<sup>3</sup> El ya citado artículo de Aierdi y Retortillo ([http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo\\_aierdi](http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo_aierdi)) los autores hacen una concisa, documentada y excelente descripción de la realidad socio-cultural vasca actual, como contexto que permite entender y valorar los datos referidos al bertsolarismo.

<sup>3</sup> In the already cited article by Aierdi and Retortillo ([http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo\\_aierdi](http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/retortillo_aierdi)) the authors offer an excellent concise and well-documented description of the current Basque socio-cultural reality as a context which allows one to understand and evaluate the data regarding *bertsolaritza*.



*Hitzetik hortzera* tele saioko lankide batzuk

Algunos miembros del programa de televisión *Hitzetik hortzera*  
Some members of the television programme *Hitzetik Hortzera*

eta erakunde guztiekin. Lan horren emaitzak dira, besteak beste, 2003ko maiatzaren 16 eta 17an Renon egin zen mintegia, bertan Jon Sarasuak, Andoni Egañak eta Joxerra Garziak bertsolaritzari buruzko liburuan<sup>4</sup> dituzten ideiak kontrastatu ahal izan zituztelarik amerikar ahozkotasan adituekin; edo, Donostian, 2003ko azaroaren lehen astean egin zen Ahozko

<sup>4</sup> Liburu beraren lau bertsio argitaratu ziren aldi berean: ingelesez, gazteleraz, frantsesez eta euskaraz. Elkartearen web orrian testu osoa irakur daiteke lau hizkuntzetan: The Art of Bertsolaritza. Improvised basque verse singing ([www.bertsozale.com/liburua/ingeleza/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/ingeleza/sarrera)); El arte del bertsolarismo. Realidad y claves de la improvisación oral vasca ([www.bertsozale.com/liburua/castellano/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/castellano/sarrera)); L'Art du Bertsolarisme. Réalité et clés de l'improvisation orale basque ([www.bertsozale.com/liburua/frantsesa/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/frantsesa/sarrera)); Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideakn ([www.bertsozale.com/liburua/euskara/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/euskara/sarrera)).

ba la Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia. En 1995 se produce una refundación, que incluye el cambio de nombre, y en todo caso no ha cesado de crecer y asumir nuevas funciones.

Integrada desde 2008 en la Fundación Mintzola (Fábrica de la oralidad), la Asociación gestiona el Centro de Documentación de la Oralidad Xepelar; organiza, coordina y promueve la investigación sobre bertsolarismo y oralidad, editando, entre otros muchos materiales, una antología anual de los mejores bertsos improvisados; coordina el movimiento de transmisión del arte del bertsolarismo tanto en las Bertso Eskolak (escuelas-talleres de bertsolarismo), como en la enseñanza reglada; produce y coordina el programa televisivo semanal sobre bertsolarismo de Euskal Telebista *Hitzetik Hortzera*; gestiona, por medio de la empresa asociada Lanku la contratación de los bertsolaris en las diversas actuaciones... Por otro lado, la Asociación tiene una presencia activa en otros ámbitos de la vida social y cultural del país. Tampoco descuida las relaciones internacionales y los intercambios con todas aquellas organizaciones y entidades que tienen que ver con la oralidad. Fruto de esa labor son, por ejemplo, el seminario celebrado en Reno los días 16 y 17 de mayo de 2003, en el que Jon Sarasua, Andoni Egaña y Joxerra Garzia confrontaron las ideas expuestas en su libro sobre bertsolarismo<sup>4</sup> con expertos oralistas americanos, o

Euskaltzaindia. In 1995, it was re-founded and even changed its name and since then, it has grown steadily and taken on new functions.

Integrated since 2008 into the Mintzola Foundation (the orality factory), the Association runs the Xepelar Orality Documentation Centre; it organises, coordinates and promotes research into *bertsolaritza* and orality, publishing (amongst a lot of other material) an annual anthology of the best improvised *bertsos*; it coordinates the movement which focuses on transmitting the art of *bertsolaritza* both in the Bertso Eskolak (school-workshops of *bertsolaritza*) and the statutory education system; it produces and coordinates the weekly television programme on *bertsolaritza* by Euskal Telebista (the Basque public television station), *Hitzetik Hortzera*; and it manages, via an associate company Lanku, the contracting of *bertsolaris* for various performances. Elsewhere, the Association is active in many other spheres of Basque social and cultural life. Nor does it neglect international relations and exchange with all those organisations and bodies that have something to do with orality. Results of these efforts include, for example, the seminar held in Reno in the United States, 16-17 May, 2003, in which Jon Sarasua, Andoni Egaña and Joxerra Garzia compared the ideas expressed in their book on *bertsolaritza*<sup>4</sup> with American oral experts; and the First Intercultural Meeting on Oral

<sup>4</sup> Se publicaron simultáneamente cuatro versiones del libro: inglés, castellano, francés y euskera. En la web de la Asociación puede accederse al texto completo de cualquiera de las cuatro versiones: *The Art of Bertsolaritza. Improvised basque verse singing* ([www.bertsozale.com/liburua/ingeleza/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/ingeleza/sarrera)); *El arte del bertsolarismo. Realidad y claves de la improvisación oral vasca* ([www.bertsozale.com/liburua/castellano/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/castellano/sarrera)); *L'Art du Bertsolarisme. Réalité et clés de l'improvisation orale basque* ([www.bertsozale.com/liburua/frantsesa/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/frantsesa/sarrera)); *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideakn* ([www.bertsozale.com/liburua/euskara/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/euskara/sarrera)).

<sup>4</sup> Four versions of the book were published simultaneously in English, Spanish, French and Euskara. One can access the entire text in any of its versions on the Association's website: *The Art of Bertsolaritza. Improvised Basque Verse Singing* ([www.bertsozale.com/liburua/ingeleza/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/ingeleza/sarrera)); *El arte del bertsolarismo. Realidad y claves de la improvisación oral vasca* ([www.bertsozale.com/liburua/castellano/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/castellano/sarrera)); *L'Art du Bertsolarisme. Réalité et clés de l'improvisation orale basque* ([www.bertsozale.com/liburua/frantsesa/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/frantsesa/sarrera)); *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideakn* ([www.bertsozale.com/liburua/euskara/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/euskara/sarrera)).

---

**Bertsolari Elkarateak webgune bikain bat dauka (lau hizkuntzatan kontsulta daitekeena: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa).**

---

Inprobisazioari buruzko Kultura arteko Lehenbiziko Topaketa. Harreman horien ondorio da *Oral Tradition* aldizkari prestigiotsuak, John Foley-ren<sup>5</sup> zuzendaritzapean 2007an bertsolaritzari buruz plazaratu zuen ale monografikoa.

Elkarateak berak webgune bikain bat dauka (lau hizkuntzatan kontsulta daitekeena: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa).<sup>6</sup> Bisitariak bertan aurkituko ditu, besteak beste, honako baliabide eta zerbitzuak: bertsolaritzaren jarduerari buruzko agenda zehatza, hainbat ekitaldiren bideoak, bertsolarien eta bertsolaritzarekin loturiko beste zenbait agenteren biografiak, inprobisazioaren hainbat alderdiri buruzko azterketak, argitalpenen katalogoa, biblioteka birtuala, bertsolaritzari buruzko datu basea, edo bertsolariek erabili ohi dituzten ia 3.000 doinuak entzuteko aukera.

<sup>5</sup> John Foleyren 2005eko txapelketako finalari buruzko kronika, egiazki bertsolaritzari buruzko ale monografikoaren hitzaurrea bezala da. Ale horrek, euskarri informatikoan bakarrik editatu den Oral Traditioneko lehenbizikoa, material grafiko askotariko eta interesgarria eskaintzen du, bai argazki finkoan eta bai audioan eta bideoan. Aldizkariaren lehen orriaren helbidea honako hau da: <http://journal.oral-tradition.org/issues/22ii>.

<sup>6</sup> Elkaratean web orria ondokoa da: <http://www.bertsozale.com>.

---

el Primer Encuentro Intercultural de Improvisación Oral celebrado en Donostia-San Sebastián la primera semana de noviembre de 2003. De estos contactos deriva el número monográfico sobre bertsolarismo publicado en 2007 por la prestigiosa revista *Oral Tradition*, dirigida por John Foley.<sup>5</sup>

La propia asociación dispone de una excelente página web (que puede consultarse en cuatro idiomas: euskera, castellano, francés e inglés),<sup>6</sup> en la que el visitante encontrará, entre otros muchos, estos recursos y servicios: una amplia agenda sobre la actividad del bertsolarismo, vídeos de diversas actuaciones, biografías de bertsolaris y otros agentes del bertsolarismo, estudios sobre diversos aspectos de la improvisación, un catálogo de publicaciones, una biblioteca virtual, una base de datos sobre el bertsolarismo, o la posibilidad de acceder a las casi 3.000 melodías que los bertsolaris emplean.

Improvisation, held in Donostia-San Sebastián during the first week of November 2003. These contacts led to a special edition of the prestigious journal, *Oral Tradition*, edited by John Foley,<sup>5</sup> being dedicated to *bertsolaritza* in 2007.

The Association itself has an excellent Web site (which can be consulted in four languages: Euskara, Spanish, French and English),<sup>6</sup> in which the visitor will find, amongst many other things, the following resources and services: an ample agenda on *bertsolaritza* activities, videos of different performances, biographies of *bertsolaris* and other agents involved in *bertsolaritza*, studies on various aspects of improvisation, a catalogue of publications, a virtual library, a database on *bertsolaritza*, and a chance to access the almost three thousand melodies used by *bertsolaris*.

<sup>5</sup> La crónica de John Foley sobre la final del campeonato de 2005, que hemos citado anteriormente, es en realidad como un prólogo al número monográfico sobre el bertsolarismo. En este número, primero de *Oral Tradition* que se editó sólo en soporte informático, ofrece diversos e interesantes materiales gráficos, tanto en foto fija como en audio y vídeo. La dirección de portada de la revista es: <http://journal.oraltradition.org/issues/22ii>.

<sup>6</sup> La página principal de la asociación es: <http://www.bertsozale.com>. La página se abre en euskera, pero allí mismo se ofrece la opción de cambiar de idioma.

<sup>5</sup> John Foley's previously noted feature on the 2005 championship is, in reality, the prologue to a special issue on *bertsolaritza*. In this issue, the first entirely online edition published by *Oral Tradition*, there is diverse and interesting graphic material, whether in the form of photographs or video and audio recordings, on the subject. The homepage of this edition is at <http://journal.oraltradition.org/issues/22ii>.

<sup>6</sup> The Association's homepage is at <http://www.bertsozale.com>. The page opens in Euskara, but one can choose one's language right there.

---

# Bertsolaritza artearen agerpenak

---

Manifestaciones del  
arte del bertsolarismo

Demonstrations of  
the Art of *Bertsolaritza*

Alegia ezagun batean, hiru itsuk, bakoitzak bere aldetik, elefantea zer eta nolakoa den jakin nahi dute. Lehenbizikoak, animalia hanka bat haztatu ondoren, dio elefantea zutabearen antzeko zera bat dela; bigarrenak, animalia tronpa haztatu du eta dio elefantea zutabea bezalakoa ez baizik soka lodilodi bat bezalakoa dela; eta hirugarrenak, animalia belarri bat haztatzea egokitu baitzaio, ondorioztatu du elefantea ez dela ez zutabea bezalakoa eta ez soka bezalakoa, alfonbra zimur baten antzeko zera bat baizik.

Hazta daitekeen objektu bat hain era desberdin eta are kontrajarritan deskribatzen bada, aztertzailaren ikus- (edo hazta-) puntuaren arabera, ez da harritzekoa izango antzeko zerbait gertatzea bertsolaritza bezalako errealitate soziokultural konplexu baten definizioa ematerakoan.

Azalpen honetan, bertsolaritza genero, arte edo ofizio gisa aztertuko dugu batez ere.<sup>7</sup> Dena dela, hemen deskribatzen dugun errealitateak hain nabarmenak ez diren oinarriak dauzka, ezinbestekoak halere bertsolaritzaren biziraupenerako. Gaur egungo bertsolaritza mantentzen, elikatzen eta berritzen duten oinarri nagusiak honako hauek dira: bertso-eskolak deritzen ikastegi-tailerrak; bertsolaritzaren irakaskuntza eskola arautuan; eta fenomeno honen presentzia medioetan, idatzietan zein ikus-entzunezkoetan eta Sarean.

Bertsolaritzaren beste alderdi hauek gehien eta ongien aztertu dituen Jon Sarasua<sup>8</sup> izan da; beraz, haren lana gomendatuko diogu aipaturiko alderdi ho-

<sup>7</sup> Bertsolaritza ofiziotzat jo daiteke jarduteko modu profesionala den heinean, ez bizimodua irabazteko bidea den aldetik. Bertsolaritzak hainbat lagunei lana ematen die, baina ia ezinezkoa da ekitaldiekin irabazten denarekin bakarrik bizitzea.

<sup>8</sup> Bereziki, kontsulta daiteke: “Gaur egungo bertsolaritzaren errealitate soziala”, [www.bertsozale.com/liburua/castellano/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/castellano/sarrera): Ikus halaber: “The social features of Bertsolarism”, <http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/sarasua>.

En una conocida fábula, tres ciegos intentan, cada uno por su lado, averiguar qué cosa es un elefante. Así, el primero, que ha palpado una pierna, afirma que el elefante es como una columna; el segundo, que ha palpado la trompa, sostiene que el elefante es como una gruesa soga; y el tercero, al que ha correspondido palpar una oreja, concluye que el elefante no es ni una cosa ni otra, sino que es una especie de alfombra rugosa.

Si un objeto palpable es susceptible de ser descrito de tan diversas y contrapuestas maneras en función del punto de vista (o de tacto) que el observador adopte, tanto más lo será una realidad socio-cultural tan compleja como el *bertsolarismo*.

En esta exposición nos centraremos sobre todo en los aspectos del *bertsolarismo* entendido como género, arte u oficio.<sup>7</sup> Sin embargo, la realidad que aquí se describe tiene bases menos visibles, sin las cuales no sería viable. Las principales bases que sostienen, alimentan y renuevan el *bertsolarismo* actual son los talleres-escuelas de *bertsolarismo* (*bertso-eskolak*); la enseñanza del *bertsolarismo* en la escuela reglada; y la presencia del género en los medios, tanto en los escritos y audiovisuales como en la Red.

Quien más y mejor ha investigado estas otras dimensiones del *bertsolarismo* es Jon Sarasua,<sup>8</sup> a cuya obra remitimos a quien quiera profundizar en esos aspectos, ya que aquí nos centraremos sobre todo en la propia actividad *bertsolarística*, en el *bertsolarismo* como espectáculo o actividad pública.

In a well-known fable, three blind men attempt, separately, to find out what an elephant is. Thus, the first one, who has just touched its leg, contends that the elephant is a column; the second, who touched the trunk, maintains that the elephant is a thick rope; and the third, who touched its ear, concludes that the elephant is neither one thing or the other, but instead a kind of coarse rug. If a palpable object can be described in such different and opposing ways according to the point of view (or touch) the observer adopts, this will be even more the case when it comes to a sociocultural reality as complex as *bertsolaritza*.

In this account I will focus above all on those aspects of *bertsolaritza* considered a genre, art or profession.<sup>7</sup> However, the reality described here has less visible foundations, without which it would not be viable. The main foundations which sustain, nurture and revitalise contemporary *bertsolaritza* are the *bertsolaritza* school-workshops (*bertso-eskolak*); the teaching of *bertsolaritza* in the statutory education system; and the genre's media presence, both in written as well as audio-visual and Web form.

The most prolific and best researcher of these dimensions of *bertsolaritza* is Jon Sarasua,<sup>8</sup> whose work I would recommend to anyone who wants to learn more about these aspects, given that here I will concentrate more on *bertsolaritza* activity itself, in other words on *bertsolaritza* as a performance or public activity.

<sup>7</sup> El *bertsolarismo* puede considerarse como oficio en el sentido de que supone un saber hacer que podemos llamar profesional, no tanto como modo de subsistencia. El movimiento del *bertsolarismo* da trabajo a bastantes personas, pero es casi imposible vivir exclusivamente de lo que se gana en las actuaciones.

<sup>8</sup> En especial, puede consultarse: "La realidad social del *bertsolarismo* actual", [www.bertsozale.com/liburua/castellano/sarrera](http://www.bertsozale.com/liburua/castellano/sarrera) Ver, asimismo: "The social features of *Bertsolarism*", <http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/sarasua>.

<sup>7</sup> *Bertsolaritza* can be considered a profession in the sense that it implies a know-how one might classify as professional, rather than in the stricter sense of a means of subsistence. The *bertsolaritza* movement employs significant numbers of people, but it is virtually impossible to make a living exclusively from what one earns by performing.

<sup>8</sup> See especially "Sociocultural Reality and Present-day *Bertsolaritza*", at <http://www.bertsozale.com/liburua/ingelesa/sarrera/>. Likewise, see also "The Social Features of *Bertsolarism*" at <http://journal.oraltradition.org/issues/22ii/sarasua>.



Bertsolariak kantuan / Bertsolaris improvisando /  
Bertsolaris improvising

riek sakonkiago aztertu nahi dituenari, izan ere, gu hemen bertsolaritza ikuskizun edo jarduera publiko gisa hartuta deskribatzen saiatuko baikara.

Alderdi hori bakarrik kontuan hartuta ere, gaur egungo bertsolaritzan agerpen aniztasun ugaria sumatzen da, eta horietako ezeinek, bakarka hartuta, ezin du fenomenoaren errealitate guztia azaldu. Aipatu ditugun Txapelketa Nagusiak, esate baterako, mugimenduaren oihartzun gisa, edo baliabide ekonomikoen iturri gisa, eduki dezaketen garrantzi guztiarekin, ez dira bertsolaritza fenomenoaren alderdi nabarmen eta ikusgarriena besterik.

gracias a Dios;  
han traído a muchos hogares  
tristeza y llanto:  
antes éramos diez en casa  
ya no quedamos más que tres.

to Aitzol (who was on the jury) with his walking-stick as he did so:

My eighty years weigh heavily on me  
and my legs ache,  
I have come to Donostia  
limping heavily all the way.  
I hobble along with two walking-sticks,  
unable to take a step.  
I've almost forgotten my Euskara  
and I cannot speak Spanish:  
soon I'll have to start  
learning Latin with a teacher at school.

We find in this kind of *bertso* another dimension of Txirrita's style which makes him very modern: his wit, manifested in an ability to find a way out even in the most compromising dialectical situations.

### The Time of Silence, 1936-1945

Following the horrors of the civil war, the post-war era was equally dreadful; especially in areas, like the Basque Country, which had been declared “traitorous” by the rebels. Aitzol, the main driving force behind the first two championships, was executed immediately in Hernani in 1936 (he was born in Tolosa in 1896). The essence of this period is captured in the resounding silence of this *bertso* by Juan Kruz Zapirain, an illiterate *bertsolari* who sublimated the horror by dictating *bertsos* to his wife which she wrote down while he tried in vain to induce sleep:

Many feelings overwhelm me,  
and I have to sing them,  
I don't know how all the evil that has been done  
will ever be remedied;  
I have not yet lost patience  
thanks be to God;  
sadness and weeping have been brought  
to many places,  
before there were ten of us at home,  
and now there are only three.



Basarri eta Uztapide / Basarri y Uztapide / Basarri and Uztapide

## Biziraupen bertsolaritza: 1945-1960

### Funtsezko erreferentziak: Basarri eta Uztapide

Hiru urte erbestean eta beste hiru zigor batailo batean gatibu-lanetan eman ondoren, Iñaki Eizmendi, Basarri (1913-1999), Gipuzkoara itzuli zen 1942an.

Basarri Errezilen jaioa zen (1913), baina ia bere bizitza osoa Zarautzen egin zuen, jaioterritik kilometro gutxira. Erbestetik itzultzean, egundoko lana egin zuen. Euskal Herriko herri gehienetan jardun zuen bertsotan, aurrena Gipuzkoan eta gero gainerako probintzietan ere bai. Bere ohiko laguna, Zestoako beste bertsolari gazte bat izaten zuen, Manuel Olaizola, Uztapide (1909-1983), 1935 eta 1936ko txapelketetan lehiakide izana bera ere. Hemen ezer gertatu ez balitz bezala jardun behar izaten zuten, iraganeko eta egunean egungo gauza asko alde batera utzita.

Uztapideren bertsolaritza Basarriena baino errazagoa eta herrikoiagoa da. Segur aski, ez zeuzkan Basarriren kezka intelektualak baina, halere, osagarririk egokiena zen harentzat. Basarrik urratzen zuen bidea, berak erabakitzen zuen aldi oro nola komeni zen gai bakoitza tratatzea.

Basarriren bertsolaritza intelektualagoa da, nolabait esatearren. Juan Mari Lekuonak adierazi zuen bezala, ongi definituriko proiektu bati erantzuten dio.<sup>24</sup> Zaletu arruntak, halere, mireспен handiagoa zion betiere Uztapideri. Basarriren ekimenaren atzean babesturik, Uztapidek ez zuen aukerarik galtzen Basarrik gai bakoitzaren gainean egiten zituen komentarioei azken ukitua emateko. Basarrik kazetaritzan ere jardun zuen, bai egunkarian eta bai irratian, eta bertso asko idatzi zituen. Uztapide, berriz, gehiago gailendu zen inprobisatzaile eta kontatzaile gisa.

<sup>24</sup> LEKUONA, J.M., «Basarriren bertsolari proiektua», in LEKUONA (1998), 364-379.

## El bertsolarismo de supervivencia: 1945-1960

### La referencia fundamental: Basarri y Uztapide

Después de tres años de exilio y otros tres de trabajos forzados en los batallones disciplinarios, Iñaki Eizmendi, *Basarri* (1913-1999), vuelve a Guipuzcoa en 1942.

*Basarri* había nacido en Régil (1913), pero la mayor parte de su vida se desarrolla en Zarauz, a pocos kilómetros de su pueblo natal. Al regresar de su exilio, desarrolla una actividad incesante. Como bertsolari, visita la práctica totalidad de las poblaciones vascas, primero en Guipúzcoa, y más tarde también el las demás provincias. Su compañero habitual es un joven de Cestona, Manuel Olaizola, *Uztapide* (1909-1983), que había participado también en los campeonatos de 1935 y 1936. Deben cantar como si nada hubiese pasado, ignorando muchas cosas, pasadas y presentes.

El bertsolarismo de Uztapide es más sencillo y popular que el de Basarri. Probablemente ajeno a las inquietudes intelectuales de Basarri, fue, sin embargo, su complemento ideal. Basarri actuaba de desbrozador, abriendo camino, decidiendo cuándo y cómo convenía tratar cada tema.

El bertsolarismo de Basarri es más intelectual, por decirlo de algún modo. Responde, como bien ha indicado Juan Mari Lekuona, a un proyecto bien definido.<sup>24</sup> La admiración del aficionado medio, sin embargo, se decanta más por Uztapide. Agazapado tras la iniciativa de Basarri, Uztapide no perdía ocasión para remachar los comentarios que sobre cada tema hacía Basarri. Basarri cultivó también el periodismo, tanto escrito como radiofónico, y ha sido un gran escritor de bertsos. Uztapide, en cambio, destaca sobre todo como improvisador y como narrador.

<sup>24</sup> LEKUONA, J.M, «Basarriren bertsolari proiektua», in LEKUONA (1998), 364-379.

## Survival Bertsolaritza, 1945-1960

### The Key Figures: Basarri and Uztapide

After three years of exile and another three years of forced labour in the so called disciplinary battalions, Iñaki Eizmendi, *Basarri* (1913-1999) returned to Gipuzkoa in 1942.

*Basarri* was born in Errezil but spent most of his life in Zarautz, a few kilometres from his birthplace. On returning home from exile, he made an interesting life for himself. As a *bertsolari* he visited practically every town in the Basque Country, first in Gipuzkoa and then in all the other provinces. His usual companion was a young man from Zestoa, Manuel Olaizola, *Uztapide* (1909-1983), who had also participated in the 1935 and 1936 championships. In the aftermath of the civil war, they were obliged to sing as if nothing had happened, ignoring many things both past and present.

*Uztapide's bertsolaritza* was simpler and more popular than that of *Basarri*. Although he did not share his intellectual concerns, *Uztapide* was the ideal complement to *Basarri*. *Basarri* forged ahead, clearing a path, deciding when and how to deal with each topic.

*Basarri's bertsolaritza* was, to put it one way, more intellectual. As Juan Mari Lekuona points out, it was all part of a well-defined plan.<sup>24</sup> The average enthusiast, however, tended to prefer *Uztapide*. Crouching behind *Basarri's* initiative, *Uztapide* wasted no opportunity to pick up on one of his comments on a particular subject. *Basarri* was also a journalist, working for both the written press and the radio, and a great composer of written *bertsos*. *Uztapide*, meanwhile, stood out as a gifted improviser and narrator.

<sup>24</sup> LEKUONA, J.M, "Basarriren bertsolari proiektua," in LEKUONA (1998), 364-379.

---

**Berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, Euskaltzaindiak egundoko lana egin zuen euskal geografia guztia bertsolari bila korrituz, publikoan jardun zezaten animatuz eta probintzia mailako txapelketak antolatuz.**

---

Basarri eta Uztapideren meritua beren bertsoen testua baino askoz harago doa. Erregimenak euskaraz onartzen zuen jarduera bakarretako bat bertsolaritza zen garai hartan, bertsolaritzaren biziraupena segurtatzen jakin zuten, ondorengo garapenerako oinarriak finkatuz. Daukagun espazio urritasuna dela eta, ez diogu eskainiko aipamen labur bat besterik bertsolaritzaren iraupenaren eta ospearen alde, batez ere Bizkaian, lan eskerga egin zuen bertsolari familia bati. Enbeitarrez ari gara, noski: Kepa Enbeita, *Urretxindorraz* (Muxika, 1878-1942), eta neurri handi batean, haren seme Balendinez (1906-1986).

Baldintza historikoak, jakina, oso desberdinak ziren Ipar Euskal Herrian. Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean, mediku gipuzkoar erbesteratu bat, Teodoro Hernandorena, herriz herri korritzen hasi zen iparraldeko hiru euskal probintziak bertsolarien bila, eta bertso-jaialdiak eta lehiaketak antolatzen, sarritan bere poltsikotik ordainduta. Horrela agertu zen bertsolari talde aski ugari bat, horietariko batzuk hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan bertsolaritzaren gailur-gailurrean ibili zirenak, batez ere Xalbador eta Mattin.

## **Erresistentziako bertsolaritza: 1960-1979**

Berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, Euskaltzaindiak egundoko lana egin zuen euskal geografia guztia bertsolari bila korrituz, publikoan jardun zezaten animatuz eta probintzia mailako txapelketak antolatuz, gero onenen artean Euskal Herriko Txapel-duna erabakitzeko.

Ahalegin horien emaitza da 1960ko bertsolari txapelketa, Euskaltzaindiak berak antolatua. Aurrena probintzia mailako txapelketak egin ziren, eta txapelketa nagusira (1935ean hasi zen saileko hirugarrena, gerra zela eta, hainbat urtetan bertan behera utzia egon ondoren) Euskal Herri guztiko onenak aurkeztu ziren.



El mérito de Basarri y Uztapide va mucho más allá del texto de sus *bertsos*. En una época en la que el *bertsolarismo* era prácticamente la única actividad en euskera tolerada por el régimen, supieron asegurar la continuidad del *bertsolarismo*, sentando las bases para su posterior desarrollo. El escaso espacio disponible nos impide dedicarle otra cosa que no sea una mera mención a una familia de *bertsolaris* que hizo una gran contribución al mantenimiento y prestigio del *bertsolarismo*, sobre todo en Bizkaia. Nos referimos a Kepa Enbeita, Urretxindorra (Muxika, 1878-1942), y también, en gran medida, a su hijo Balendin (1906-1986).

Los condicionamientos históricos eran, por supuesto, muy diferentes en el País Vasco-francés. Al terminar la segunda guerra mundial, un médico guipuzcoano exiliado, Teodoro Hernandorena, comienza a recorrer pueblo a pueblo las tres provincias vasco-francesas, en busca de *bertsolaris*, y organizando festivales y concursos, a menudo con su propio dinero. Aparece así un nutrido grupo de *bertsolaris*, algunos de los cuales llegarán a formar parte de la elite del *bertsolarismo* de los sesenta y de los setenta, en especial Xalbador y Mattin.

### **El bertsolarismo de la resistencia: 1960-1979**

A finales de la década de los cincuenta, la academia de la lengua vasca, Euskaltzaindia, realiza una labor ingente, recorriendo la geografía vasca en busca de *bertsolaris*, animándoles a actuar en público, y organizando campeonatos provinciales, de cara a la celebración del campeonato de Euskal Herria.

Fruto de estos esfuerzos es el campeonato de *bertsolaris* de 1960, organizado por la misma Academia. Previamente se organizaron campeonatos provinciales, y a la cita del campeonato (que podemos considerar como el tercero de la serie iniciada en 1935 e

Basarri and Uztapide's merit goes far beyond the text of their *bertsos*. At a time when *bertsolaritza* was almost the only activity in Euskara tolerated by the regime, they made sure *bertsolaritza* survived and laid the foundations for its future development. Space precludes anything more than a mere mention of a family of *bertsolaris* that made a major contribution to the preservation and prestige of *bertsolaritza* at this time, especially in Bizkaia: Kepa Enbeita, *Urretxindorra* (Muxika, 1878-1942), and also to a great extent his son, Balendin (1906-1986).

The historical context was of course quite different in the French Basque Country. After the Second World War an exiled doctor from Gipuzkoa, Teodoro Hernandorena, began visiting towns in the three French Basque provinces in search of *bertsolaris*; as well as organising festivals and competitions, often paying for these out of his own pocket. As a result, a large group of *bertsolaris* emerged, some of whom would go on to form part of the *bertsolaritza* elite in the 1960s and 1970s –prime amongst which were Xalbador and Mattin.

### **Resistance Bertsolaritza, 1960-1979**

In the late 1950s the Basque Language Academy, Euskaltzaindia, undertook a major project to seek out *bertsolaris* all over the Basque Country and encourage them to perform in public. At the same time it organised provincial championships with the aim of holding a national championship of Euskal Herria (the Basque Country).

The result of all this effort was the 1960 *bertsolaritza* championship, which was organised by the academy itself. The best *bertsolaris* to emerge from the aforementioned provincial championships attended the event in 1960 (which might be considered the third in the series that had begun in 1935 and that was interrupted by the civil war).



Aita Antonio Zabala



Basarri izan zen txapelkun, pronostiko guztiak bez. Halere, hurrengo txapelketa (1962) Uztapidek irabazi zuen, eta, prentsako polemika garratz baten ondoren, Basarrik ez zuen gehiago parte hartu txapelketetan, beste zenbait jardunalditan lehiatzen jarraitu bazuen ere. Basarri erretiratu ostean, Uztapidek irabazi zituen 1965eko eta 1967ko txapelketa ere.

### Auspoa

Bertsolaritzaren motorra, hirurogeiko hamarkada honetan, ezbairik gabe, txapelketak dira, bertsolariek herrietan antolatzen diren bertso jaialdietan parte hartzen jarraitzen badute ere. Txapelketa nagusietako bat-bateko bertsoak *Auspoan* argitaratzen dira, Aita Antonio Zabalak (1928-2009) 1964an sorturiko bilduma, bere egoitza Tolosan duena, bertsolaritzaren eta, oro har, euskal ahozko literaturaren benetako altxorra.

Bildumaren izena, Auspoa, metafora ezin egokiagoa gertatu da, berak mantendu baitu bizirik ahozko literaturaren sua.

### Hirurogeiko hamarkadako lau txapelketak

Txapelketa hauetan agertuko dira frankismo garaian eta trantsizioko lehen urteetan bertsolaritza bizirik mantenduko duten bertsolariak. Basarrik eta Uztapidek osaturiko bikote erreferentzialarekin eta aipatu ditugun Xalbador eta Mattinekin batera, beste bertsolari batzuk agertuko dira orain, Basarri eta Uztapide erretiratu ondoren, arte horren bizirapena segurtatuko dutenak: Jose Lizaso (Azpeitia), Jose Agirre, Garmendia, Mitxelena, Mugartegi, Azpillaga, Lazkao Txiki, Lopategi, Gorrotxategi... Badira aldi honetan bertsolari batzuk, txapelketetan parte hartu gabe ere —edo oso gutxitan behintzat— bertsolaritzaren historian tarte bat edukitzea merezi izan dutenak. Horien arteko aipagarriena Manuel Lasaarte da (Leitza/Orio, 1927-2012), Leitza jaioa eta Orion finkatua, oso bertsolari maitatua eta miretsia

interrumpida por la guerra) acudieron los mejores de esas previas.

Basarri fue proclamado campeón, cumpliendo así los pronósticos. Sin embargo, el siguiente campeonato (1962) lo ganó Uztapide, y, tras una agria polémica en la prensa, Basarri no volvió a participar en los campeonatos, aunque sí en otros concursos. Retirado Basarri, Uztapide ganó también en los campeonatos de 1965 y 1967.

### Auspoa: el fuelle

El motor del bertsolarismo en esta época de los sesenta son, sin duda, los campeonatos, aunque los bertsolaris siguen actuando en las sesiones organizadas en los pueblos. Los bertsos improvisados en las finales se publican en *Auspoa*, una colección creada por el padre Antonio Zavala (1928-2009) en 1964, con sede en Tolosa, verdadero tesoro del bertsolarismo y de la literatura oral en general.

El nombre de la colección ha resultado ser mucho más que una metáfora. “Auspoa”, significa “fuelle”, y en verdad la colección ha sido y es un verdadero fuelle que no ha dejado de avivar la llama de la literatura oral.

### Los cuatro campeonatos de los sesenta

Es en estos campeonatos donde se dan a conocer los bertsolaris que van a sostener el bertsolarismo durante todo el franquismo y los primeros años de la transición: junto a la pareja referencial, formada por Uztapide y Basarri, y los ya mencionados Xalbador y Mattin, aparecen ahora algunos de los bertsolaris que asegurarán la pervivencia del arte tras la retirada de Basarri y Uztapide: Jose Lizaso (Azpeitia), Jose Agirre, Garmendia, Mitxelena, Mugartegi y Azpillaga, Lazkao Txiki, Lopategi, Gorrotxategi... Hay algunos bertsolaris de esta época que, aún sin participar en los campeonatos —o haciéndolo sólo muy esporádicamente— se han hecho un hueco en la historia del bertsolarismo. El más significativo de todos ellos es

Basarri was proclaimed champion, as most people had predicted. However, Uztapide won the next championship in 1962 and, after a major dispute in the press, Basarri never competed in the national championship again (although he did take part in other competitions). Without Basarri to compete with, Uztapide also won the 1965 and 1967 championships.

### *Auspoa*: The Bellows

The driving force of *bertsolaritza* in the 1960s was definitely the championships, although *bertsolaris* continued to perform at events organised in various towns and villages. The *bertsos* improvised in finals were published in *Auspoa*, a collection of works established by Father Antonio Zavala (1928-2009) in 1964. Published in Tolosa, this collection constitutes a true treasure chest of *bertsolaritza* in particular and oral literature in general.

The title of this collection is much more than just a metaphor. *Auspoa* means “bellows,” and it has indeed functioned (and continues to function) as a real pair of bellows, constantly stoking and reviving the flame of oral literature.

### The Four Championships in the 1960s

The *bertsolaris* who would ultimately come to sustain *bertsolaritza* during the later years of the Franco regime and the initial years of the political transition after 1975 emerged in the four national championships held in the 1960s. Alongside the key duo of Uztapide and Basarri, and the already mentioned Xalbador and Mattin, a group of *bertsolaris* emerged during this decade that would make sure the art form survived after Basarri and Uztapide retired: Joxe Lizaso (Azpeitia), Joxe Agirre, Garmendia, Mitxelena, Mugartegi and Azpillaga, Lazkao Txiki, Lopategi, Gorrotxategi, and so on. Moreover, some of the *bertsolaris* who also emerged at this time, even though they did not compete (or only rarely) in the championships,

---

**Bertsolariak, hirurogeiko hamarkadan, eta baita hirurogeita hamarrekoaren lehen urteetan ere, mundua eta funtsezko balioak ikusteko eran berarekin bat datorren publiko batentzat kantatzen du.**

---

zaletuen aldetik. Lasarteren bertsogintza gauzak ongi esatean oinarritzen da batez ere, bere errimak moldatzerakoan eta esaldiak bertsoaren barruan txertatzerakoan erakusten duen erraztasun eta naturaltasunean.

Bertsolariak, hirurogeiko hamarkada honetan, eta baita hirurogeita hamarrekoaren lehen urteetan ere, mundua eta funtsezko balioak ikusteko eran, berarekin bat datorren publiko batentzat kantatzen du. Testuinguru horren oinarria Euskal Herriak eta bere hizkuntzak jasaten duten zapalkuntzan datza. Testuinguru horretan, hizkuntzaren iraupena segurtatzera datorrela dirudien edozein elementuk, aparteko testurik edo baliabiderik gabe ere, sortzen eta azalarazten du entzuleriaren emozioa. Euskal sentimenduak garbi adierazteko askatasunik ez dagoenez, gai eta balio tradizionalak, horien artean erlijioa gailentzen dela, ahalbidetzen diote bertsolariari entzuleengan emozio sakonak eragitea bertso soilen bitartez, balio eta erreferentzia horiek aipatze hutsarekin. Txapelketetan ere apenas erabiltzen den lau errimatik gorako bertsorik.

Txapelketa horietako bat-bateko bertsoetan sakontasun poetiko handiko testuen bila doanak desilusio latza jasango du. Bertsolariei proposatzen zaizkien gaiak gehienbat topiko-arketipikoak dira. Bertsolariak badaki euskaltasunaren baieztatze hutsak, ezkutuen dela ere, bertso saioaren inguruabar ia liturgikoetan (*performancea*), emozio sakona eragingo duela bere entzulerian. Badaki entzulea bat datorrela kristau fedearekin eta balio tradizionalekin: amatasuna, lana, zintzotasuna...

Ez dago esaterik, noski, aldi horretako bertso guztiak kalitate eskasekoak direnik. Bi bertsolari daude beren bertsoen testuaren kalitateagatik gainerako guztien artean gailentzen direnak, beren sendotasun puntuak desberdinak badituzte ere. Bat Lazkao Txiki da; bestea, Xalbador.

Manuel Lasarte (Leiza/Orio, 1935), nacido en Leiza y afincado en Orio, bertsolari muy querido y admirado por los aficionados. El bertsolarismo de Lasarte se basa sobre todo en el bien decir, en la muy elaborada apariencia de naturalidad con la que engarza las rimas y encaja sus frases en los moldes de las estrofas.

El bertsolari, en esta década de los sesenta y también, en parte, en la de los setenta, canta para un público con el que comparte estrechamente un modo de ver el mundo y unos valores fundamentales. El fondo de este contexto lo da el sentimiento de opresión en el que malvive el pueblo vasco y su idioma. Sobre ese fondo, cualquier elemento que parezca asegurar la pervivencia del idioma provoca, por sí mismo, una emoción que no precisa para manifestarse de grandes textos ni de recursos. A falta de libertad para expresar directamente los sentimientos vascos, los temas y valores tradicionales, entre los que destaca la religión, permiten al bertsolari suscitar grandes emociones en sus oyentes por medio de bertsos sencillos, con la mera mención de esos valores y referencias. Incluso en los campeonatos, rara vez se utilizan estrofas de más de cuatro rimas.

Quien pretenda encontrar en los textos de los bertsos improvisados en estos campeonatos piezas de gran densidad poética sufrirá un gran desencanto. Los temas que se proponen a los bertsolaris son mayoritariamente tópico-arquetípicos. El bertsolari sabe que la mera afirmación de lo vasco, por velada que sea, producirá, en las circunstancias casi litúrgicas de la sesión bertsolarística (*performance*), una emoción intensa en su auditorio. Sabe que el oyente comparte la fe cristiana y los valores de la tradición: la figura de la madre, el trabajo, la honradez...

No todos los bertsos de esa época presentan, por supuesto, esa escasa relevancia textual. Hay dos bertsolaris que destacan sobremanera por la calidad textual de sus bertsos, si bien sus puntos fuertes son distintos. Uno es Lazkao Txiki. El otro, Xalbador.

also made a name for themselves in the history of *bertsolaritza*. The most important of these was Manuel Lasarte. Born in Leitza in 1935, he settled in Orio and was much loved and admired amongst *bertsolaritza* enthusiasts. Lasarte's *bertsolaritza* was mainly based on good expression, the finely crafted natural appearance which threaded together his rhymes and matched his words to the mould of the stanzas.

*Bertsolaris* in the 1960s and to some extent in the 1970s sang for a public with whom they shared the same outlook and basic values. The basis of this context was the sense of oppression felt by the Basque people and their language. In this context, anything that appeared to help preserve the language evoked feelings that did not need to be expressed in great texts or resources. Lacking the freedom to directly express any Basque sentiment, traditional subjects and values —amongst which religion was paramount—allowed *bertsolaris* to stir up tremendous emotion, just by mentioning such values and references, amongst their listeners by means of simple *bertsos*. Even in the major championships, for example, they rarely used stanzas of more than four rhymes.

Anyone seeking out work of major poetical complexity within the texts of the improvised *bertsos* at this time will be disappointed. The topics proposed to the *bertsolaris* were in the main clichéd and archetypal. *Bertsolaris* knew that the mere mention of the word “Basque” (however veiled) would evoke, in the almost liturgical setting of a *bertsolaritza* performance, an intense emotional response amongst the audience. They knew that their listeners shared the Christian faith and traditional values: the figure of the mother, work, honesty, and so forth.

Obviously though, not all *bertsos* dating from this time were of little textual merit. Indeed, there were two *bertsolaris* who stood out significantly for the quality of their *bertsos*, even though they had different particular strengths. One of them was Lazkao Txiki; the other, Xalbador.



Jose Miguel Iztueta, *Lazkao Txiki*

### Lazkao Txiki

Jose Miguel Iztueta, *Lazkao Txiki* (Lazkao, 1926-1993) bertsolaritzako mitoetako bat dugu, zalantzarik gabe, bere bizitzako azken urteetan jadanik halaxe zen.

Mutilzaharra, Txirrita bezalaxe, baina gorpuzkera txikikoa izaki, aurkezten duen pikaro mota hernaniarrak irudikatzen zuenaren guztiz desberdina da. Txirrita bezala, Lazkao Txiki ere, guztiaren gainetik, bertsolaria da. Ezagunak dira haren zorrotasuna eta gatza, eta horri gehitzen badiogu bere gorpuzkera txikia, bere ahots mehe eta hauskorra eta kantatzeko zeukan era kadentziatsua, aise ulertzen da bertsolari maitatua izan zela bizi izan zen denboran eta nostalgiaz oroitua hil zenez geroztik.

Lazkao Txikik, bere belaunaldiko beste hainbat bertsolarik bezala, denboren aldaketara egokitzen jakin zuen eta beti izan zen bertso jaialdietara gehien deitzen zutenetakoa. Bertsolaritzako pasadizo go-goangarrietako bat 1989an *Hitzetik Hortzera* telebista programak antolaturiko bertso afari batean bota zuen bertso hauxe dugu. Gaia esku ispilu txiki horietako bat zen, gai-jartzaileak kantatzeko une berean eman ziona. Ispiluan islatzen zen irudiaren gainetik begiak kendu gabe, Lazkao Txikik hiru bertso antologiko bota zituen, horietako bat honako hauxe:

Aizak nik hiri bota behar dit  
bertso koxkor bat edo bi,  
bebingoan jarri geranez gero  
biok aurpegiz-aurpegi.  
Neri begira hortik daduzkak  
alferrikako bi begi:  
hik ez nauk noski ni ikusiko,  
baina nik ikusten haut hi.

### Xalbador

Fernando Aire *Xalbadorren* kasua (Urepel, 1920-1976) guztiz desberdina da. Beharbada bere euskalkiak, behenafarrerak, baldintzaturik, nahiko urrundu bertsozale gehienak ohituak zeuden eredu

## Lazkao Txiki

Jose Miguel Iztueta, Lazkao Txiki (Lazkao, 1926-1993) es, sin duda, lo era ya en los últimos años de su vida, una figura mítica del bertsolarismo.

Comparte con Txirrita su empedernida y tópica soltería, que, unida a su escasa estatura corporal, completa un tipo de pícaro distinto al que encarnaba el hernaniarra. Como Txirrita, Lazkao Txiki es, ante todo, bertsolari. Son ya proverbiales su agudeza y su ingenio, que unidas a su estampa diminuta, a su voz candorosa y frágil y a su cadenciosa forma de cantar hicieron de él un bertsolari querido en vida y añorado tras su muerte.

Lazkao Txiki, como algunos otros bertsolaris de su generación, supo adaptarse al cambio de los tiempos, y nunca dejó de ser solicitado en las actuaciones. Una de las estampas inolvidables del bertsolarismo es su actuación en una cena de bertsolaris organizada por el programa televisivo *Hitzetik Hartzera* en 1989. El tema lo constituía un espejo de mano, que el conductor de la sesión le entregó en el momento oportuno. Sin dejar de mirar la imagen reflejada en el espejo, Lazkao Txiki improvisó tres bertsos antológicos, uno de los cuales transcribimos a continuación:

Mira, ya que por una vez  
nos encontramos cara a cara  
te voy a cantar un bertso,  
o quizá un par de ellos.  
No sé qué miras con esos ojos  
que de nada te sirven:  
porque, claro, tú no me ves,  
pero yo sí que te veo a tí.

## Xalbador

El caso de Fernando Aire *Xalbador* (Urepel, 1920-1976) es totalmente distinto. Quizá el condicionamiento de su dialecto bajonavarro, bastante alejado del modelo, básicamente gipuzcoano, que la mayoría de los oyentes estaban acostumbrados a oír tenga

## Lazkao Txiki

Jose Miguel Iztueta, *Lazkao Txiki* (Lazkao, 1926-1993) is without doubt—and already was by the final years of his life—a mythical figure of *bertsolaritza*.

He shared with Txirrita a confirmed and somewhat clichéd bachelor existence which, alongside his tiny physical stature, imbued him with a different kind of mischievous nature to that of the *bertsolari* from Hernani. Like Txirrita, though, Lazkao Txiki was above all a *bertsolari*. His wit and ingenuity are now proverbial. And added to his diminutive appearance, his simple fragile voice and his rhythmical way of singing, it all made him a treasured *bertsolari* during his lifetime and sorely missed after his death.

Lazkao Txiki, like several other *bertsolaris* of his generation, understood how to adapt to the times and was always in demand to perform. One of the most unforgettable images of *bertsolaritza* is his performance in a *bertsolari* dinner organised by the television programme *Hitzetik Hartzera* in 1989. The topic was a hand-mirror, with which he was presented by the theme-presenter of the session at the appropriate moment. Without taking his eyes off his reflection in the mirror, Lazkao Txiki improvised three memorable *bertsos*, one of which is transcribed here:

Hey, since we're face-to-face  
for a change,  
I'm going to sing you a *bertso*  
or perhaps even two.  
I don't know what you're doing looking at me  
with those useless eyes:  
because of course you won't see me,  
but I can see you.

## Xalbador

The story of Fernando Aire, *Xalbador* (Urepele, 1920-1976) is completely different. Perhaps his dialect of Euskara, that of Lower Navarre—which was quite distinct from the essentially Gipuzkoan model that most



Xalbador, Michel Labeguerie eta Mattin

gipuzkoarretik, Xalbador, bizi izan zen garaian, bertsolari miretsia izan bazen ere, ez zen gertatzen jendearentzat Uztapide, Lazkao Txiki edo Martin Treku *Mattin* bezain hurbileko edo herrikoi.

Halere, edo agian horrexegatik, Xalbadarren bat-bateko bertsoen testuak dira denboraren iragaitea ongien jasan dutenak, gure gaur egungo sentsibilitatearentzat modernoena gertatzen direnak.

Bere jaioterri Urepeleko artzaina izanik, harrigarria gertatzen da Xalbadarren fintasun poetikoa. Bere bertso idatzien liburua *Odolaren mintzoa* benetako harri bitxi bat da, maila goren-gorenako antologia.

Bere bertso idatziak alde batera utzita, haietako asko gaur abesti bihurtuak, Xalbador bat-bateko bertsolari harrigarria izan zen, ohi ez bezalako sentsibilitate poetikoz hornitua. 1965eko txapelketan, bakarka egiteko bertsoaldi baterako gai hauxe jarri zioten: “Zure emazte zenaren soinekoari”, eta Xalbadorrek nekez hobe daitezkeen bi bertso hauexek bota zituen:

Pentsa zazute alargudu bat  
ez daike izan urusa,  
dolamen hunek, oi, ez dezala  
anitz gehiago luza!  
Orai urtea ziloan sartu  
andreñoaren gorputza,  
haren arropa hantxet dilindan  
penaz ikusten dut hutsa.

Geroztik nihaur ere nabila  
guzia beltzez jantzirik;  
ez dut pentsatzen nigar eiteko  
ene begiak hesterik.  
Ez pentsa gero, andre gaxoa,  
baden munduan bertzerik  
zure arropa berriz soinean  
har dezakeen emazterik.

Xalbadorrek inprobisatzaile gisa lortu zuen ospe guztia –eta orain aitortzen zaion meritua– goiko horren mailako bertsoei esker irabazi zuen. Ez zeukan Basarrirena edo Uztapiderena bezalako ahots ederrik



algo que ver con el hecho de que fuera en vida un *bertsolari* admirado, pero no tan entrañable para la gente como Uztapide, Lazkao Txiki o Martin Treku *Mattin*.

Sin embargo, o quizá por eso mismo, los textos de los *bertsos* improvisados de Xalbador son los que mejor han resistido el paso del tiempo, los que más modernos resultan a nuestra sensibilidad actual.

Siendo como era pastor en su Urepel natal, llama la atención su finura poética. Su libro de *bertsos* escritos, *Odolaren mintzoa* (La voz de la sangre), es una verdadera joya, una antología de primerísimo nivel. Aparte de sus *bertsos* escritos, muchos de ellos convertidos hoy en canciones, Xalbador fue un improvisador extraordinario, dotado de una sensibilidad poética fuera de lo común. En el campeonato de 1965, en una de sus intervenciones en solitario, le correspondió el tema “Al vestido de tu difunta mujer”, y Xalbador improvisó dos *bertsos* difícilmente mejorables:

Sabed que es imposible  
que un viudo sea feliz;  
¡Que no se alargue  
este sufrimiento!  
Hace un año depositamos  
su cuerpo en el nicho;  
su ropa se balancea ahora,  
vacía, ante mi apenada vista.

Desde entonces visto  
yo también negro luto;  
ni siquiera para llorar  
he de cerrar mis ojos.  
No temas, pobrecita mía,  
no hay en el mundo otra mujer  
que pueda llegar a vestir  
un día tus vestidos.

Todo lo que Xalbador fue como improvisador —y los méritos que se le reconocen ahora— se lo ganó a base de *bertsos* de parecido nivel. Ni su voz era un portento, como lo eran las de Basarri y Uztapide, por ejem-

listeners were used to hearing— had something to do with the fact that, during his lifetime, he was an admired *bertsolari* but he did not touch people as much as Uztapide, Lazkao Txiki or Martin Treku, *Mattin*.

Nevertheless, or maybe even because of this, the texts of Xalbador’s improvised *bertsos* have best withstood the passage of time; in other words, they sound the most modern to our present-day ears.

Given that he was a shepherd in his home town of Urepel, his poetic refinement was particularly striking. His book of written *bertsos*, *Odolaren mintzoa* (The Voice of Blood) is a true gem, a first-rate anthology.

Besides his written *bertsos*, many of which were later turned into songs, Xalbador was also an extraordinary improviser, blessed with an unusual poetic sensibility. In the 1965 championship, during one of his solo performances, his was given the topic “To the dress of your deceased wife.” In response, Xalbador improvised two unforgettable *bertsos*:

Understand that it is impossible  
for a widower to be happy;  
let this suffering  
not last too long!  
A year ago we placed  
her body in the niche;  
her clothes sway now  
empty before my sorrowful eyes.

Ever since then I too have  
worn black in mourning;  
I will not close my eyes  
to my tears;  
don’t worry, my poor darling,  
there is no other woman in the world for me  
who may wear  
one day your dresses.

Everything Xalbador was as an improviser —and the merit given him today— he earned on the basis of *bertsos* of this kind of quality. He was not blessed with a marvellous voice like Basarri or Uztapide, for example, and he was not as popular as Mattin or Lazkao Txiki.

---

**Xalbadorren bertso idatzien liburua “Odolaren mintzoa” benetako harri bitxi bat da, maila goren-gorenko antologia. Bat-bateko bertsolari harrigarria izan zen, ohi ez bezalako sentsibilitate poetikoz hornitua.**

---

ez eta Mattin edo Lazkao Txikirena bezalako sinpatiarik ere.

Esan dugu, Xalbadorren euskara zela eta, entzule arruntak nekez ulertzen zituela haren bertsoak bere sakontasun eta osotasun guztian. Horren adibiderik adierazgarriena 1967ko txapelketan gertatu zen, epaimahaiak bere erabakia azaldu zuenean: Xalbador aukeratu zutela, eta ez Lazkao Txiki, azken urteetako irabazlearen aurka, Uztapideren aurka amaierako saioan txapela jokatzeko. Erabakiaren berri jakin bezain laster, publikoa protestatzen eta txistuka hasi zen, ez dakigu seguru Xalbadorren aurka ala epaimahaiaren aurka. Txistualdia zaratatsua eta luzea izan zen, oso luzea. Horretan, Xalbador mikrofonora hurbildu eta bertso hau kantatzen hasi zen, ia entzuten ez bazitzaion ere iskanbila haren erdian:

Anai-arrebak, ez otoi pentsa  
ene gustura nagonik;  
poz gehiago izango nuke  
albotik beha egokik  
Zuek ez bazerate kontentu,  
errua ez daukat ez nik...

Eta bat-batean txistuak Xalbadorren aldeko esku zarta eta eupada bihurtu ziren eta, kostata bada ere, honelaxe amaitu zuen bertso hura:

...Zuek ez bazerate kontentu  
errua ez daukat ez nik:  
txistuak jo dituzute baina  
maite zaituztet orainik.

Edizio hartatik aurrera, Euskaltzaindiak utzi egin zion bertsolari txapelketak antolatzeari. Laster iritsiko ziren errepresio urte gogorrenak, ETAREN heriozko lehen atentatuak eta Burgosko epaiketak. Parentesi laburren batzuk kenduta, salbuespen egoera izan zen hainbat urtetan Estatuaren ohiko araua Euskal Herriarentzat. Xalbador bere sorterri Urepelen hil zen, bertsolaritzak omenaldi bat eskaintzen zion egun berean, 1976ko azaroaren 7an, nekez hobetu daitekeen liburu bat, eta urteak igaro ahala handiagotuz doan bertsolari ospea utziz.

plo, ni su popularidad era comparable a la de Mattin o Lazkao Txiki.

Hemos dicho que el idioma impedía al oyente medio apreciar en profundidad sus *bertsos*. La máxima expresión de ese desencuentro se produjo en el campeonato de 1967, cuando el jurado dio lectura a su veredicto, en el que se elegía a Xalbador, y no a Lazkao Txiki, para jugarse la *txapela* en el último asalto contra el sempiterno campeón, Uztapide. Leída el acta, el público comenzó a protestar, silbando no se sabe exactamente si contra Xalbador o contra el jurado. La pitada fue sonora y larga, muy larga. En un determinado momento, Xalbador se acerca al micrófono y comienza a cantar un *bertso*, apenas audible en el estruendo de la pitada:

Hermanos, hermanas, no penseis  
que me siento a gusto:  
¡Cuánto mejor estaría  
mirando desde un rincón!  
Si no estais contentos  
no será por mi culpa.

En ese instante, los pitos se tornaron aplausos y vivas hacia Xalbador, que apenas pudo terminar su *bertso*:

Si no estais contentos  
no es culpa mía:  
a pesar de vuestros silbidos  
yo os sigo queriendo.

A partir de esa edición, la Academia dejó de organizar campeonatos de *bertsolaris*. En seguida llegaron los años de represión más encarnizada, los primeros atentados mortales de ETA, los juicios de Burgos. Salvo algún efímero paréntesis, el estado de excepción fue, durante años, la norma del estado en el País Vasco.

Xalbador murió el día en el que el *bertsolarismo* le dedicaba un homenaje en su Urepel natal, el 7 de noviembre de 1976, dejando un libro difícilmente superable y un recuerdo como *bertsolari* que se agiganta a medida que pasan los años.

I remarked that Xalbador's dialect prevented his listeners from fully appreciating his *bertsos*. This was most evident during the 1967 championship, when the jury announced its decision, choosing Xalbador instead of Lazkao Txiki to compete for the *txapela* in the final round against the reigning champion Uztapide. After the decision was announced the audience began to protest, jeering at either Xalbador or the jury (no one knows for sure). The booing was loud and extended, lasting a very long time. Xalbador then walked up to the microphone and started to sing a *bertso* which was barely audible over the din:

Brothers and sisters, do not think  
that I am happy;  
how much better would I feel  
looking on from some corner!  
If you are not happy  
it is not my fault...

At this moment the whistles turned into applause and cheers for Xalbador, who was barely able to finish his *bertso*:

...If you are not happy  
it is not my fault:  
in spite of your whistles  
I still love you.

After this event, the Basque Language Academy stopped organising *bertsolaris* championships. And soon afterwards came the harshest years of Franco's repression, ETA's first deadly assassinations and the Burgos trials. With the exception of the odd fleeting reprieve, a state of emergency was for years the norm in the Basque Country.

Xalbador died on the day the world of *bertsolaritza* arranged a tribute to him in his home town of Urepele, on 7 November, 1976. He left behind a book which would be difficult to better and a memory as a *bertsolari* that grows more with the passing of the years.



Lopategi eta Azpillaga

### Francoren garaian eta ondoren: Lopategi eta Azpillaga

Hirurogeita hamarreko hamarkadan protagonista bihurtuko dira aurreko hamarkadako txapelketetan parte hartu zuten bertsolariak. Diktadorearen akabera gero eta hurbilago ikusten den neurrian, gauzak zuzenago esateko premia ere areagotuz doa, agintarien baimenarekin edo gabe.

Bertsolaritza politiko-errebindikatuileago baten premia nagusituz doa pixkanaka, horrekin zigorrik asko ere jasan beharko duten arren publikoak eskatzen duena esatera ausartzen diren bertsolariek. Bi bertsolari gailentzen dira aldi honetan: Jon Lopategi eta Jon Azpillaga.

1997an eskaini zitzaizen ondo merezitako omenaldi batean, bi protagonistek, Lopategi hasita, honela deskribatu zuten garai hartako bertsolaritza:

Animu asko ez zan izaten,  
pertsokuzino ugari,  
baina bihotzak hala aginduta  
ez ginan ibili nagi.  
Zazpi probintzi pasa genduzen  
bertso ederrez kantari,  
ze egun eder gozoak haiek  
Euskadiren pregoilari.

Deitzen euskuen leku danera  
botatzen gendun pausua;  
alaitasunez jartzen genduan  
herria eta basua;  
arrazoitzako berba genduan,  
arma moduan bertsua,  
gaurko moduan eskatzen gendun  
Euskal Herri bat osua.

Honek premisak jotzen zituzten  
eta konklusinoak nik,  
ez zan hain gatxa sentimentua  
argumentutzat izanik.

### Antes y después de Franco: Lopategi y Azpillaga

En la década de los setenta, el protagonismo recae en los *bertsolaris* que había aparecido en escena a raíz de los campeonatos de la década anterior. A medida que se percibe el fin inminente del dictador, aumenta la necesidad de decir las cosas de una manera más directa, con o sin permiso de la autoridad gubernativa.

Un *bertsolarismo* más directamente político-reivindicativo se impone poco a poco, lo que reporta no pocos castigos a los *bertsolaris* que se atreven a decir lo que el público demanda. Destacan en esta época dos *bertsolaris*: Jon Lopategi y Jon Azpillaga.

En un merecido homenaje que se les tributó en 1997, ambos protagonistas, comenzando por Lopategi, describen así el *bertsolarismo* de aquella época:

Faltaba ánimo,  
sobraba represión,  
pero el corazón nos impulsaba  
a no permanecer ociosos.  
Recorrimos las siete provincias  
cantando hermosos *bertsos*;  
días felices porque éramos  
pregoneros de Euskadi

Nunca dejábamos de acudir  
a donde se nos llamara;  
llevábamos alegría  
a pueblos y aldeas;  
la palabra era nuestra razón,  
el *bertso* nuestra arma,  
reclamábamos, como hoy,  
un Pueblo Vasco unificado.

Éste ponía las premisas  
y yo sacaba las conclusiones:  
no es tan difícil si la razón  
se basa en el sentimiento.

### Before and After Franco: Lopategi and Azpillaga

In the 1970s *bertsolaris* who had emerged on the scene during the championships of the previous decade took over the leading role in the field. As the imminent end of the dictator became more and more apparent, so there was a greater need to express things more clearly, whether with or without the permission of the ruling authorities.

Gradually, a more obviously political and protest *bertsolaritza* began to take shape, resulting in many *bertsolaris* who dared to express what the public wanted being punished. And two *bertsolaris* stand out from this era: Jon Lopategi and Jon Azpillaga.

In a well-deserved tribute to them in 1997, both men, starting with Lopategi, described the *bertsolaritza* of that time:

Too few good spirits,  
too much repression,  
but our hearts prompted us  
not to remain idle.  
We travelled the seven provinces  
singing beautiful *bertsos*;  
such happy days  
foretelling of the Basque Country to come.

We always went  
wherever we were called;  
we took happiness  
to towns and villages;  
words were our reason,  
*bertsos* our weapons,  
we demanded then as we do now  
a unified Basque Country.

He gave the premises  
and I drew the conclusions;  
it is not so difficult when argument  
is based on feeling.

Hamahiru urteko parentesiaren ondoren, Euskaltzaindiak berriz ere bertsolari txapelketa bat antolatzea erabaki zuen, eta finala Donostian egin zen, 1980ko urtarrilaren seian.

Asko ez ziren kontuan jausten abertzaleak ziranik, baina bihotza zabaltzen jaken “hau Euskadi da” esanik.

Francoren heriotzarekin, Euskal Herrian optimismo eta itxaropen giroa sortu zen eta hainbat garaipen pozgarri ospatu ahal izan zituen herriak: kartzelan zeudenen lehenbiziko askapenak, ikurrina legez-tatzea, amnistia, etab. Giro politikoa zeharo desberdina bada ere, bertsolariak oraindik ere, bere itxaropen berberak partekatzen dituen publikoa dauka bere aurrean. Horregatik, nahiago izan dugu Francoren heriotzaren ondorengo lehenbiziko urteak “Erresistentzia bertsolaritza” epigrafe honetan barne hartu, izan ere trantsizioko lehen urteetako bertsolaritza garatzen den testuinguruko baldintzak direla eta, hurbilago baitago diktadura garaiko bertsolaritza-tatik, geroago, publikoaren zatiketarik eta desengainutik sortuko den bertsolaritza-tatik baino.

## **Herriarentzat abestetik publikoarentzat abestera: 1980-1998**

### **Amuriza**

Hamahiru urteko parentesiaren ondoren, Euskaltzaindiak berriz ere bertsolari txapelketa bat antolatzea erabaki zuen, eta finala Donostian egin zen, 1980ko urtarrilaren seian.

Gauzak (bertsolariak, bertsoak egiteko era) ez dirudi asko-asko aldatu direnik azken txapelketatik, 1967an Xalbadorri txistuak jo zizkioteneko hartatik.

Zortzi finalistetako batzuk 1967an ere finalista izanak ziren: Garmendia, Azpillaga eta Gorrotxategi. Hauekin batera Patxi Etxeberria eta Angel Larrañaga agertu ziren, bertsolaritza erraza, zuzena eta herrikoia praktikatzeko zuten bi gipuzkoar. Xanpun ere han zen, Iparraldearen ordezkarietan (Xalbador hila zen eta Mattin, handik urtebetera hilko zena, apenas agertzen zen jendaurrean).

Muchos no tenían conciencia de ser abertzales, pero se les ensanchaba el corazón al oírnos: “esto es Euskadi”.

Tras la muerte de Franco, se crea en el País Vasco un clima de optimismo y esperanza, jalonado con explosiones de júbilo por cada conquista que se va realizando: primeras excarcelaciones, legalización de la *ikurriña*, amnistía, etc. Aunque el clima político es radicalmente distinto, el *bertsolar* sigue teniendo ante sí un público que comparte sus mismas esperanzas. Es por eso que hemos preferido englobar los primeros años tras la muerte de Franco en este epígrafe de “bertsolarismo de la resistencia”, pues las condiciones contextuales en las que se desarrolla el bertsolarismo de los primeros años de la transición lo hacen más asimilable al bertsolarismo del tiempo de la dictadura que al bertsolarismo posterior, que surge del desencanto y de la división del público.

## De cantar al pueblo a cantar para el público: 1980-1998

### Amuriza

Tras un paréntesis de trece años, Euskaltzaindia decide organizar un nuevo campeonato de bertsolaris, cuya final se celebró en San Sebastián en el día seis de enero de 1980.

Las cosas (los bertsolaris, la forma de hacer bertsolarismo) no parecen haber cambiado grandemente desde el último campeonato, aquél de 1967 en el que Xalbador fue silbado.

